

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoa -abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan-, eta Gasteizko udaleko 2022ko enplegu-eskaintza publikoa onestea

2022ko maiatzaren 13an egindako ohiko bilkuran (gai-zerrendatik kanpo), Tokiko Gobernu Batzarrak aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoa –abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan–, eta Gasteizko udaleko 2022ko enplegu-eskaintza publikoa onetsi ditu.

Sektore publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 2022ko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak beharrezko esparru juridikoa ematen die administrazioei, administrazioetan dagoen egiturazko behin-behinekotasun tasa ehuneko 8tik beherakoa izan dadin lortzeko. Legearen zioen azalpenak nolabaiteko behin-behinekotasun tasa beharrezkoa duela edozein erakundek aitortzen badu ere –berezko ere baduela–, izaera hori galtzen da behin-behinekotasun tasa egiturazko bihurtzen bada, behin-behinekotasunak eragotzi egiten baitu zerbitzu publikoen kalitatea bermatzera zuzenduriko politikak egituratzea.

Behin-behinekotasuna murrizte aldera, legeak hautaketa-prozesu espezifikoak egiteko aukera ematen du, behin bakarrik, administrazio publikoetan dagoen egoera horri amaiera emateko.

Salbuespen gisa, merezimendu-lehiaketa bidez egingo direnak hautaketa-prozesu jakin batzuk ezartzen ditu, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten plazetarako, betiere Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 61.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Era berean, beste hautaketa-prozesu batzuei ematen die bide, lehiaketa-oposizio bidez, legearen 2. artikuluko baldintzak betetzen dituzten lanpostuetarako.

Prozesuek lehia-, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak betetzen direla bermatuko dute.

Prozesu berri horietan atzerapenik gertatu ez dadin, administrazioei eskatzen zaie egonkortze-prozesu horiei lotutako enplegu-eskaintzak dagozkien aldizkari ofizialetan onar eta argitara daitetzela 2022ko ekainaren 1a baino lehen, eta dagozkien deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen, halako moduan non prozesuak 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko baitira.

Gure erakundea ez dago behin-behineko egoera horretatik kanpo, eta, horregatik, beharrezkoa da egoerari amaiera emateko behar diren prozesuak antolatzea, bai eta onartu arren deitu ez diren eskaintzak Lege berrira egokitzea ere.

Testuinguru horretan, eta Legearen 2.1 artikuluekin bat etorritik, Sektore publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen artikulua horretan xedatutakora egokituko dira jarraian zedarrituko diren Gasteizko Udalaren hiru eskaintza onetsi baina deitu gabeak, eta horietan bildutako plazak egonkortze-prozesu berrietara gehituko dira (non eta 20/2021 Legeak adierazitako baldintzak betetzen dituzten) edo eskaintza arruntera gehituko dira. Hauek dira, bada, hiru eskaintza horiek: 2018ko abenduaren 28ko Gobernu Batzordean onetsia (C2 taldeko 132 plaza eta E taldeko 77 plaza); 2019ko abenduaren 13ko Gobernu Batzordean onetsia (C2 taldeko 191 plaza eta E taldeko 119 plaza); eta 2019ko abenduaren 13ko Gobernu Batzordean onetsia (A1, A2, C1/C2/E taldeetako plazak, 112 guztira, zein Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren laugarren xedapen iragankorrari baitagozkie).

Aurrez aipatutako egonkortze-eskaintzaz gain, 2022rako lan-eskaintza publiko arrunta onartzen da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 70.1 artikuluan arabera, eta Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorren 22/2021 Legearen 20. artikuluan adierazitako irizpideekin bat etorritik. Desgaitasun intelektualen bat duten pertsonentzako plazak koadro berezi batean adierazten dira.

Eskaintza horietan desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plazak ehuneko bat betetzen da, hartara betetzen delarik Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen zazpi-garren xedapen gehigarrian zein 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan –zeinek Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorra onartzen baitu– xedatutakoa.

Egonkortzeko eta eskaintza arrunteko eskaintzen prozesu konplexu hori bideratzeko asmoz, hautaketa-prozesuak gauzatzeko Giza Baliabideak Antolatzeke Plana onartu da.

Egonkortze-eskaintzak 672 plaza ditu guztira, hautaketa lehiaketa-sistemaren bidez, eta beste 50 plaza, hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa dutenak. Funtzionarioen plazak izango dira eskaintako horiek guztiak.

Eskaintza arruntak 151 plaza ditu, eta beste 14 desgaitasun intelektualen bat duten pertsonentzako. Horiek guztiak, funtzionarioen plazak izango dira.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, negoziazio-bilerak egin dira Udal honetako Langileen Batzordearekin 2022ko apirilaren 4an, 5ean eta 6an, eta maiatzaren 3an eta 5ean. Bilera horietan, eskaintzetan sartu beharreko plaza eta txanda kopurua zehaztu zen.

Era berean, dosierrari antolakuntza-txostena erantsi zaio, zeinak barne hartzen baititu bitartekotasun-tasa, enplegu-eskaintza bien (egonkortzekoa eta arrunta) proposamena eta birjartze-tasari buruzko txostena, aurrekontu-legearen arabera. Halaber, prozesuari lege-estaldura ematen dion txosten juridikoa eta kreditu egokia eta nahikoa izateari buruzko txosten ekonomikoa erantsi dira, baita Udaleko Kontu-hartzailetza Nagusiaren aldeko txostena ere.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 53.1 artikuluan ezarritakoa betez, "Estatuko Administrazio Orokorriari igorriko zaio enplegu publikoaren eskaintza onartzeko erabakia".

6/1989 Legeak 24. artikuluan xedatzen duenez, "enplegu-eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, EHAA, argitaratuko dira, eta, foru-aldundi edo toki-korporazioenak badira, dagokien lurralde historikoko aldizkarian. Azken kasu honetan, EHAAn ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat".

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikulua –abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidea betez, Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-Proposamen hau aurkezten dio

Lehena. 2022rako enplegua egonkortzeko lan-eskaintza publikoa onartzea, 1. eta 2. eranskinetan azaltzen denaren arabera:

1. eranskina: 50 lanposturen eskaintza. Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan arabera, oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira lanpostu horiek.

2. eranskina: 672 lanposturen eskaintza. Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera, lehiaketa bidez hautatuko dira lanpostu horiek.

Bigarrena. 2022rako lan-eskaintza publiko arrunta onartzea, Enplegatu Publikoaren Oinarri-zko Estatutuaren Testu Bateginaren 70.1 artikulua arabera eta Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2021 Legearen 20. artikuluan adierazitako irizpideekin bat etorritik, eranskinean ageri den bezala:

3. eranskina: 151 plazen eskaintza, eta beste 14 plaza desgaitasun intelektualen bat duten pertsonentzako.

Hirugarrena. Enplegu-eskaintza publiko hauek BOEn, EHAAn eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 11n

Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

1. ERANSKINA

EGONKORTZE EPEa

LEHIAKETA-OPOSAKETA

DESG	Desgaitasuna
LIBRE	EPE Librea
DD	Derrigortasun-data amaituta
Lanpostu	Lanpostu kodea

TITULU-TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KODEA	DD	DESG	LIBRE	GUZTIRA
A1	ARKITEKTOA	5003	EZ		1	1
	AUKERA-BERDINTASUNEN AG.	5047	EZ		1	1
	DISEINATZAILE GRAFIK. G.T	5017	EZ		1	1
	ENPLEGU/PREST.G.T.(INFORM	5042	EZ		1	1
	GERIATRA	5023	BAI		1	1
	INFORMAZIO KUDEAKETAKO T.	5075	BAI		1	1
	PSIKOLOGOA	5022	BAI		1	1
Guztira A1					7	7
A2	ANIZTASUN TEK.	6062	BAI		1	1
	ARKITEKTO TEKNIKOA	6004	BAI		1	1
	BASOGINTZAKO INGENIARI.T.	6063	EZ		1	1
	GARAPENEAN LAGUNTZEKO ET	6054	EZ		1	1
Guztira A2					4	4

TITULU-TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KODEA	DD	DESG	LIBRE	GUZTIRA
C2	ADMINISTRARI LAGUNTAILEA	3001	EZ		1	1
	APARKAL. JAGOLEAK	1820	EZ		1	1
	ARGIBIDE ETA KONTROL. AG.	1720	BAI		5	5
			EZ		3	3
	ATERPETXEKO JAGOLEA	1821	EZ		1	1
	ERIZAINZAKO TEK.	7018	BAI	1		1
			EZ		3	3
	GARBIKETA 1	1904	BAI		1	1
	IKUSENTZUNeko T.E.	1486	EZ		1	1
	MANTENTZE LANETARAKO OFZ	1722	EZ	1	9	10
SUHILTZAILE ESPEZIALISTA	9007	EZ		3	3	
SUKALDEKO OFIZIALA	1725	EZ		1	1	
Guztira C2				2	29	31
E	GARBIKETA 2	1906	EZ		6	6
	GARBITZAILE ZERBITZ.	1907	EZ	1	1	2
Guztira E				1	7	8
Guztira orokorra				3	47	50

2. ERANSKINA

EGONKORTZE EPEa

LEHIAKETA: (6.XG eta 8.XG)

DD	Derrigortasun data amaituta
Lanpostu kod	Lanpostu kodea

TITULU-TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KODEA	DD	TOTAL
A1	ADMIN. OROK. G.T.	1035	BAI	2
	ARKITEKTOA	5003	BAI	2
			EZ	2
	DISEINATZAILE GRAFIK. G.T	5017	EZ	1
	EMPLEG.PREST.G.T.: L.B	5079	BAI	3
			EZ	2
	ENPRES.INGUR.KUDEAK.G.T.	5080	BAI	1
	ENPRESA-MERKATARITZ. G.T.	5078	BAI	5
	G.M.TEK. (A.B.T.)	5036	EZ	1
	HIRI GARBIK.HOND.KUD.BUR.	242	EZ	1
	INFORMAZ. TEKN. ADM. G.T.	1032	BAI	1
	KONTRATA ETA HONDAK. G.T.	5065	EZ	1
	LANBIDE G.T.	5018	EZ	1
PLANGINTZA ETA PROIEK BUR	102	EZ	1	
TEK. KONTSERBATZAILEA	6072	EZ	1	
Guztira A1				25
A1,A2	OINAR. GIZ. ZERB. ARD.	1302	BAI	1
Guztira A1,A2				1

TITULU-TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KODEA	DD	TOTAL
A2	ARKITEKTO TEKNIKOA	6004	EZ	1
	ARTXIBOKO E.T.	6037	EZ	1
	EKINT. SOZIOKULTURA. E.T.	1402	BAI	2
			EZ	1
	ELEKTRIZITATEKO ING.TEK.	6071	EZ	1
	GARAPENEAN LAGUNTZEKO ET	6054	EZ	2
	GERIATRIAKO ERIZAINA	6032	BAI	2
			EZ	2
	GESTIO TEKN.	2003	BAI	1
			EZ	2
	GIZARTE HEZITZAILEA	6030	BAI	2
			EZ	1
	GIZARTE LANGILEA	6023	EZ	1
	GIZARTE-INKLUSIOKO E.T.	6053	EZ	1
	H.S.U.Z. ARDURADUNA	6065	EZ	1
	HIZKUNTZA-NORMALIZ. E.T.	6045	EZ	1
	INFORM. APLIKAZIOETAKO ET	6051	EZ	1
	INGENIARI TEKNIKO INDUSTRI	6012	BAI	1
			EZ	1
	INGENIARI TEKNIKOA	6003	EZ	1
JARDUERA-KONTR. ING.TEK.	6069	EZ	1	
OBRA ZERB. BUR.	329	EZ	1	
PRESTAKUNTZAKO E.T.	6025	EZ	1	
ZERB. ELEKTRIKOETAKO BUR.	304	EZ	1	
Guztira A2				30
A2,C1	HEZITZAILEA	1437	BAI	36
Guztira A2,C1				36
C1	ADMINISTRARIA	2005	BAI	1
			EZ	2
	ANTOLAKUNTZA ESP.	8007	EZ	1
	DELINEAMTE LAGUNTZ. TEK.	7012	BAI	1
	IKUSENTZUNeko T.E.	1499	BAI	1
			EZ	1
	PROTOKOLO KUDEAK. TEK.	7020	EZ	1
	SUKALDARIA	1490	EZ	2
TRONBOI JOLEA	1143	BAI	1	
Guztira C1				11

TITULU-TALDEA	LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KODEA	DD	TOTAL
C2	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	3001	BAI	10
			EZ	8
	APARKAL. JAGOLEAK	1820	BAI	8
			EZ	5
	ARGIBIDE ETA KONTROL. AG.	1720	BAI	92
			EZ	23
	ATERPETXEKO JAGOLEA	1821	EZ	5
	ERIZAINZAKO TEK.	7018	BAI	17
			EZ	32
	GARBIKETA 1	1904	BAI	19
			EZ	5
	LAN. BIDEZ. PREST. IRAK.	1731	EZ	5
	LAN.BID.PREST.MONIT.ELEK.	1740	EZ	1
	MANTENTZE LANETARAKO OFIZ	1722	EZ	43
PARKE ETA LORAT.TALDE BUR	601	EZ	1	
PROGRAMAZIO LAGUNTZAILEA	1489	EZ	1	
SUHILTZAILE ESPEZIALISTA	9007	EZ	2	
SUKALDEKO OFIZIALA	1725	EZ	6	
Guztira C2				283
E	ALBAITARITZAKO LAGUNTZ.	1802	EZ	3
	GARBIKETA 2	1906	EZ	213
	GARBITZAILE ZERBITZ.	1907	EZ	37
	IKUZ, JOS. LISA.LAGUNTZ.	1815	EZ	4
	LANBIDE LAGUNTZ.	1825	EZ	24
	SUKALDARI LAGUNTZAILEA	1909	EZ	5
Guztira E				286
Guztira Orokorra				672

3. ERANSKINA

EPE ARRUNTA

DD	Derrigortasun-data amaituta
Lanpostu kod	Lanpostu kodea
1BI	Barne-igoera
2DESG	Desgaitasuna
3LIB	Epe librea
EZESKAIN	Ez zena eskaini

TITULU-TALDEA	LANPOSTU KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	DD	1BI	2DESG	3LIB	GUZTIRA
A1	1035	ADMIN. OROK. G.T.	BAI		1	2	3
			EZ	1		1	2
	1038	INGURUM PLANGIN KUDEA TE	EZ			1	1
	5003	ARKITEKTOA	BAI			1	1
			EZ			1	1
	5004	EKONOMISTA	EZ			1	1
	5018	LANBIDE G.T.	EZ			1	1
	5022	PSIKOLOGOA	BAI	1	1	2	4
			EZ			1	1
	5027	USTIAP. INFORM.SIST.G.T.	EZ			1	1
	5029	DOKUMENTALISTA G.T.	EZ			1	1
	5051	GAZTERIAKO G.T.	BAI			1	1
5079	EMPLEG.PREST.G.T.: L.B	BAI			1	1	
5081	IKUS-ENTZUNEZKOEN KUD.G.T	BAI			1	1	
Guztira A1				2	2	16	20
A2	920	ORIENTAZIO-ENPLEGUKO E.T	BAI			1	1
	1402	EKINT. SOZIOKULTURA. E.T.	BAI	1		1	2
	1417	ANTOLAKUNTZA E.M.T.	BAI			1	1
	2003	GESTIO TEKN.	BAI			1	1
	6004	ARKITEKTO TEKNIKOA	EZ	1		2	3
	6014	HEZKUNTZAKO E.T.	BAI	1		2	3
	6017	E.M. TEKNIKARIA (A.B.E.T.)	EZ			1	1
	6023	GIZARTE LANGILEA	BAI			1	1
			EZ	1		1	2
	6037	ARTXIBOKO E.T.	BAI	1		1	2
	6039	KIROL KOORD. E.T	BAI	1		3	4
	6042	LAN HARREMANETAKO E.T.	EZ			1	1
	6045	HIZKUNTZA-NORMALIZ. E.T.	BAI			1	1
	6048	PREBENTZIO-SEGURT. E.T.	BAI			1	1
9006	INSPEKTOREORDEA	EZ	1		1	2	
Guztira A2				7		19	26
C1	1112	KLARINETE JOLEA	EZ			1	1
	1121	XIRULA JOLEA	EZ			1	1
Guztira C1						2	2

TITULU-TALDEA	LANPOSTU KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	DD	1BI	2DESG	3LIB	GUZTIRA
C2	601	PARKE ETA LORAT.TALDE BUR	EZ	1			1
	1720	ARGIBIDE ETA KONTROL. AG.	BAI	2	1	2	5
			EZ	1		2	3
	1722	MANTENTZE LANETARAKO OFIZ	EZ	8	2	13	23
	1725	SUKALDEKO OFIZIALA	BAI			1	1
			EZ	1		1	2
	1820	APARKAL. JAGOLEAK	BAI			1	1
	1821	ATERPETXEKO JAGOLEA	EZ		1	1	2
			BAI			1	1
	1904	GARBIKETA 1	BAI	2		6	8
	7018	ERIZAINZAKO TEK.	BAI	1		1	2
EZ			1	1	4	6	
9007	SUHILTZAILE ESPEZIALISTA	BAI			8	8	
		EZ			15	15	
Guztira C2				17	5	56	78
E	1815	IKUZ, JOS. LISA.LAGUNTZ.	EZ			1	1
	1825	LANBIDE LAGUNTZ.	EZ			2	2
	1906	GARBIKETA 2	EZ			15	15
	1907	GARBITZAILE ZERBITZ.	EZ			6	6
	1909	SUKALDARI LAGUNTZAILEA	EZ			1	1
Guztira E						25	25
Guztira orokorra				26	7	118	151

ADIMEN-DESGAITUENTZAKO EPEa

AZKEN1	LANPOSTU KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	DD	2DESG	EZESKAIN	GUZTIRA
EPEDESG	1825	LANBIDE LAGUNTZ.	EZ		1	1
	1833	ZERBITZU LANGUTZAILEA	EZ	3	8	11
	1906	GARBIKETA 2	EZ		2	2
Guztira orokorra				3	11	14
*Lanbide laguntzailearen eta G2ren dotazioak zerbitzu-laguntzaile izatera pasatuko dira Lanpostuen Zerrendan						